



Zurekin

BARA KALDO

gara

EKIMENA | IRTENBIDEAK

HERRI PROGRAMA 2019

- | | | |
|---------------------------------|------------------------------|-------------------------------|
| 1. Maria Solar Romero | 12. Jesus Ezeiza Bengoetxea | 23. Rebeka Gómez Reigosa |
| 2. Iraide Kareaga Martínez | 13. Ziortza De Miguel Pereda | 24. Josu Gómez Nieto |
| 3. Mikel Fernández Mínguez | 14. Endika Abella Barañano | 25. Izortze Santín Gómez |
| 4. Liher Imaz Goienetxea | 15. Elba Franco Martinez | 26. Iñaki Kortazar Saldamando |
| 5. Oihane Anzorandia Kareaga | 16. Aritz García García | 27. Jose Gormedino Gomez |
| 6. Koldo Castaños Lekue | 17. Idoia Kareaga Gómez | |
| 7. Elena Lafuente Etxeberria | 18. Gorka Santamaría Miranda | 01. Iñaki Cabero Merino |
| 8. Luis Alberto Rahona Urkiza | 19. Montse Saiz Díez | 02. Ane Sainz-Espiga Gracia |
| 9. Iruene Ezenarro Aurrekoetxea | 20. Jose Ramón Alonso Crespo | 03. Begoña Oribe Hueda |
| 10. Iker Gustrán Iglesias | 21. Maite Rodríguez Ruperez | 04. Roberto De Gracia Yáñez |
| 11. Maialen Cuevas Viota | 22. Alexis Rodríguez Lopez | 05. Alazne Ibañez Azkona |

Sarrera: printzipioak

Euskal Herria Bildu osatzen dugun gizon-emakumeok, politika egiteko modu ezberdin bat dagoela uste dugu, Barakaldoko auzotarren mesedera lan egiten, euren behar izanak modu eraginkorrean asetuz. Gure oinarria herria da, eta horren alde dihardugu urteetan zehar. Horren ondorioz printzipio zehatz batzuen arabera ezartzen dugu gure funtzionamendua instituzio barnean eta instituziotik kanpo, printzipio zehatz bezain malguak. Gure egunerokotasun pertsonalak adierazten baitigu, bizitzan aldaketak ematen direla eta aldaketoi aurre egiteko malgutasuna erabili behar dela. Hona hemen printzipioak:

Demokrazia:

Udal politika ulertzen dugu, herritarrekin eta herritarrentzat erabakiak hartzeko modu bat bezala. Erabaki txikiak eta erabaki handiak, egunerokotasunean eragiten dutenak eta hurrengo hamarkadetan eragingo dutenak ere. Balio demokratikoak izan behar dituen udal bat nahi dugu, zeinean ahaldundutako herritarrek boterean daudenak egiten dutenaren oro fiskalizatu ahal izango dutenak. Benetako demokrazia gardena da; benetako demokrazia parte hartzailea da, herritarrekin batera erabakiak hartzea da.

Gizatasuna:

Pertsonak erdigunean jartzearen aldekoak gara, ez izenburu gisa baizik eta gure politikaren zehar lerro gisa. Pertsonak erdigunean, hirigintza diseinuak emakumeei bizkarra emateari utz diezaioten. Pertsonak erdigunean, jendartean diseinaturiko herri bat izan dadin, eta kotxe zein kamioien garraioan diseinaturiko herria izateari uzteko. Pertsonak erdigunean, irisgarritasun unibertsalaren printzipioa edozein diseinu eduki beharko lukeen marra gorria izan dadin. Era berean, uste dugu, herri jasangarria eraikitzeko unea heldu dela behingoz. Bai, ingurugiroaz, mugikortasunaz, kontsumo ereduaz, ... ari gara.

Ekitatea:

Murrizketa sozialen garai iluna atzean utzi behar delakoan gaude. Diru publikoaren erabilerak irizpide bat bete behar duela sinetsita gaude: ekitatea. Dirua ondo erabili baino, dirua era justo batean erabili behar da. Herritarrek dituzten beharrianetara egokitutako gastua izan behar du. Azaleko gastuak deuseztatuz, dirua lehentasunetara bideratu ahal izango da, gastua inbertsioa bihurtuz.

Kohesioa:

Barakaldo egun osatzen dugun pertsonak oso anitzak gara, eta gero eta anitzagoak izango gara. Jatorria, generoa, aniztasuna,....horrekin bizi gara eta hori da gure etorkizuna. Horregatik pertsona bat bera ere alde batera ezin dute utzi instituzioek, bere jatorria, generoa, orientazio sexuala edota egoera sozioekonomikoa bat edo beste izan. Pertsonen oinarrizko beharrianak asetuz.

Herri programa

2019

Etorbizuneko Barakaldo

ehbildu

Kultur aniztasuna eta migrazioak

Barakaldo anitza da; kulturari, zein bertako bizilagunen jatorriari dagokionez. Ondorioz, gure helburua herri hau aniztasun horretatik osatzea da; hiritar guztiak inplikatur, jatorri guztiak kontuan hartuz, eta inor bere kulturaren elementu identitarioagatik baztertu behar izan gabe; beti ere, giza zein oinarritzko eskubideak ortzimugan. Era berean, jendarte zuzenagoa nahi dugu; beraz, aniztasun hori kudeatuko dugu mota guztietako ezberdintasunak baztertuz.

Hiritar guztien eskubideak eta betebeharrak berdintasunaren hastapenean oinarritzen direla kontuan hartuz, jendarte-ezberdintasunen desagertzearen alde borrokatuko dugu. Aberastasuna banatuz gero, jendarte osoaren ongizatea bermatuko da. Ondorioz, erabat baztertuko dugu jaioterriaren irizpidea hiritarrak sailkatzeko. Izan ere, erabat sinistuta gaude, herri honetan bizi garen guztiok lehenengo mailako euskal hiritarrak garela, gure jaioterria, generoa, sexu-joera, kultur jatorria, eta gainontzeko ezaugarriak kontutan hartu gabe.

Kultur aniztasunaren kudeaketa eredu demokratikoaren bidetik eraman behar da. Era horretan, kultur aniztasun handia du gure jendarteak eta hura osatzen duten errealitate zein pertsona ororen parte-hartzea eta elkarbizitza bermatuko dugu. Euskal Herria Bilduk pertsona guztien eskubideak eta berdintasun-aukera aldarrikatzen ditu. Behar diren neurri guztiak hartuko ditugu, errebindikazio hori egikaritu arte; hori da geure konpromisoa. Helburu hori lortzeko, herri administrazio guztiek zabalik egon behar dute hiritar guztientzat, bertan kudeatzen diren zerbitzu eta baliabide publiko guztietara sarbidea erraztuz.

Proposamenak:

Kultur aniztasuna udaletxeko arlo guztietan modu horizontalean nahi dugu egotea. Horregatik, zera proposatzen dugu:

- **Kultur Aniztasunaren Eremua sortzea.** Orain dagoen “Immigrazio” Eremuaren ikusmolde mugatua eta sorospen-ikuspegia gaingiduz.
- **Barakaldo zurrumurrueetatik gune aske bihurtzea.** Honela, estereotipo negatiboetatik, zein elkarbizitza zailduko duten jarreretara eramango gaituzten topikoetatik babestuta egongo gara.
 - Aniztasunaren Eskola birpentsatzea: Solasaldietarako eremua izatetik zurrumurruen kontrako benetako tresna bihurtzea.
- **Irakaskuntza erkidegoan sartzeko kultur aniztasuna.** Horretarako kultur aniztasuna kudeatzeko egitarauak egikaritzea.
 - Udalerrri honetara heltzen diren pertsonentzako harrera-protokoloa sortzea ikastetxe zein udaletxearen arteko lankidetzan; bertan euskara zein euskal kultura kohesio tresna bezala balioztatzea.

- **Osasun zentruetan ere, kultura aniztasunaren ikuspegia kontuan hartzea** itzulpen zerbitzuak behar dituenari eskainiz
- **Kulturaren aldetik anitzak** diren pertsona zein elkarten **presentzia sustatzea** edonon.

Gazteria

Barakaldoko gazteria biztanle-talde berezia da, eta jendartea bera bezalaxe, anitza eta zabala. Talde honek osoko zapalkuntza pairatzen du; horregatik egoera hori gainditzeko, osoko irtenbideak behar ditugu.

Zeharka landu behar da gazteriaren eremua, etorkizunean behar dugun aldaketa politiko eta sozialaren motorra izango baitira gazteak; beraz, bizimodu duina eskaini behar diegu. Ildo horretatik Euskal Herria Bilduk Barakaldoko gazteen oraina zein etorkizuna bermatuko dituen politika bat egikaritzeko apustua egiten du, arlo guztietan; beti ere, haien beharrak eta nahiak kontuan hartuz.

Bere gazteria zaintzen ez duen herriak ez du etorkizunik. Euskal Herria Bilduk onartzen du gazteak beren oraina eta beren etorkizunaren protagonista eraginkorrek direla. Horregatik, pertsona gazteen beharrak kontuan hartuz, belaunaldien arteko espazioak sortuko ditugu; parte-hartzeko zein erabakitzeo, gazteak ere, eskubide osoko hiritarrak direlarik.

Proposamenak:

- Gazte elkarteetara zein elkartu gabe dauden gazteengana udal erakundeak hurbiltzea, **parte hartzeko bideak sustatuz**, haien proiektuak garatu ditzaten.
 - **Tresnak eta baliabideak** gazteen eskura jartzea, horien **proiektuak garatu ahal izan ditzaten**. Hauxe izan beharko litzateke Barakaldon gazte-politikaren oinarria.
 - Udal eskaintzaz gain, **autogestio-guneak eskuratzea**, haien proiektuak era autonomoan garatu ahal izan ditzaten.
- **Gazteriaren mahai teknikoa sortzea**; bertan Udaleko Gazteria Sailako arduradunek zein teknikoek haien eskarmentua, formazioa, hausnarketa **parteka ditzaten** gure gazteokin. Ostean, guztion artean, Barakaldo zein Ezkerraldeko gazte-politikak martxan jartzeko.
- **Gazte Txartela sortzea eta sustatzea**. Honen bitartez, gazteek abantailak eskuratuko dituzte udal guneetan; polikiroldegietan, tokiko garraioetan, antzerkian ...
- **Gazteriaren Udal Zerbitzuari behar dituen baliabideak ematea**:
 - **Topaleku berria zabaltzeko**. Gazteen zein nerabeek behar duten ekipamendu berria, jendarte-hezitzaileekin; Gurutzeta, Llano eta Lutxanako gazte-astialdirako Giltzarri plataforma barruan.

Euskara

Barakaldo gaztelaniaren hegemonia linguistikopean bizi da. Izan ere, gure herriko jendarte- eta lan-elkartrukeetan zein elkartruke instituzionaletan gaztelania nagusitzen den bitartean, euskaldun jendeak ezin du bere egunerokotasuna euskaraz garatu. Ondorioz, euskararen statusa menpekoa da. Naturalizat hartzen da erdaldunak soilik gaztelaniaz bizitzea, baina euskaldunak soilik euskaraz bizitzea ezindu egiten da.

Egia da, euskaldunen eskubideei dagokionez, hobetu egin dela azkeneko bost hamarkadatan; eta aldaketa horren motorra eta akuilua herri ekimena izan dela, nagusiki; baina administrazioak errebindikazio hau beretzat hartu duen eremuetan, emaitzak biderkatu egin dira.

Hots, Barakaldoko euskalduntze prozesua bizkortzeko, politika linguistiko eraginkorra garatu eta egikaritu egin behar dugu. Horretarako ezinbestekoa da euskarari status egokia ematea; hau da: hizkuntza normalizatu bati dagokiona. Ezagutza eta erabilpenaren artean dagoen arrakala gainditzeko, bizitzaren arlo guztietan sortu behar dira euskaraz bizi izatea ahalbidetzen dituzten ekimenak: kultur eskaintza, komunikabideak, aisialdiak, eta lan-, instituzio- zein jendarte-harremanetan, oro har.

Proposamenak:

- **Euskara sustatzeko plangintza zein arautegia taxutzea** aurrekontu duinekin, eta kontrol zein ebaluazio-baliabideak emanez, pertsona euskaldunon eskubideak bermatzeko eta euskararen erabilpena sustatzeko.
- Barakaldon, **hizkuntza normalizaziora bideratutako jarduerak** martxan jartzea:
 - Euskara ikastearen doakotasunerantz urratsak ematea. Euskara ikasteko doako edo prezio sinbolikoan ikastaroak antolatzea, gurasoentzat bereziki. Horretarako IGEen lankidetzat bilatzea.
 - UKEk ematen dituen helduentzako ikastaroak zein jarduerak euskaraz ere eskaintzea.
 - Familiarako euskarazko jarduerak gehitzea; haurrentzako jarduera guztiak euskaraz eskaintzea.
 - Ikastetxe publikoetako langile ez-irakasle guztiak euskaldunak izatea bermatzea. Batez ere ikasleekin kontaktu zuzenean daudenetik hasita (atezainak, jantokiko monitoreak ...)
- Udal erakunde, edo zerbitzu guztietan **informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzea**:
 - Herri administrazioak egiten dituen kontratu berrietan hizkuntza irizpideak zehaztea, eta sartzea.
 - Udaletxerako lan egiten duten enpresa guztiek bete beharko zituzten hizkuntza irizpide horiek.
 - Herri administrazioetako kontratuetan, dauden egiaztagiri guztien baliokidetzeko eta indartzeko neurriak hartzea (Bikain, Bai Euskarari ... besteak beste)

- Hamasei urte baino gutxiagokoentzat zuzendutako jarduera guztietan euskararen presentzia eta erabilpena bermatzeko neurriak hartzea. Herri Administrazioak lehenetsi beharko luke.
 - UEMA babestu, indartu eta zabaltzea.
 - Euskararen presentzia gehitzea, Udalak babesten dituen jarduera guztietan; etorrera gehitzeko kanpainak ere garatzea.
 - Erretiroengatik ateratzen diren plazak euskaraz izatea bermatzea.
- **Euskararen erabilpena sustatzeko eta jendarteratzeko kanpainak** martxan jartzea:
 - Barakaldia, Barakaldoko euskaldunak eta euskaltzaleak aktibatzeke.
 - Euskara Aholku Batzordea: Bere parte hartzeke izaera indartzea, jendearen proposamenak eta ideiak biltzeke tresnak martxan jarritz.

Herri programa

2019

Barakaldo aurreratua

ehbildu

Industria

Euskal Herria, oro har, herrialde aurreratua da ekonomiaren ikuspuntutik. Hala ere, argi-ilunak baditu, zeren eta krisialdiak gure indargunean gogor jo gaitu: industrian. Barakaldon langabezia tasa %14koa da, Europako bataz bestekoa %8.7 den bitartean. Gainera, errentaren banaketa ez da batere bidezkoa.

Gaur, pribatuak izaten dira industria-enpresa gehienak. Hala ere, publiko-pribatu elkarlanean oinarritutako politikoak baliabide asko erraztuko luke eta industria-politika horren koordinazioa ere bai. Modu horretan industria-sektoreko emaitzak biderkatuko lirarteke; baita lurralde osokoak zein bertako biztanleen bizimoduaren hobekuntza ere.

Gure industria-sektoreak pairatzen ari den endekapena gelditzea ezinbestekoa da. Horretarako industria-politika eraginkorra jarri behar da martxan: eragile politiko sindikal zein sozialen arteko akordioetatik abiatuta, teknologia aurreratuan oinarrituta, etekinaren aldetik anitza, jendartearen ikuspuntutik zuzena, fiskalitate arduratsua duena, ekologikoki iraunkorra, eta lurraldeen artean ehun industrial orekatua sortzen duena. Eredua hau izango da gure helburua.

Proposamenak:

- **Ezkerraldeko, Meatzaldeko eta Oarsoaldeko Sozio-ekonomia Berreragiteko Instituzioen arteko Plangintza Estrategikoan** parte hartzea. Plangintza honetan aurreikusitako lan-taldeetan Barakaldoren parte-hartzearen bitartez, helburu estrategikoak eta sektore-plangintzak taxutuko dira.
- Kontsumoa zein ingurumenaren gaineko eragina gutxitzeko **Energia-Trantsizioarekin konpromisoa hartzen duten enpresak laguntzea**.
 - Energia-Trantsizioaren beharrak aprobetxatzea sektore berriak martxan jartzeko: enplegu berdea, energia berriztagarriak ...
 - Tokiko energia-enpresa eta jendarte-interesa duenak babestea.
- **Eskualdeko Sustapenerako Bulegoa** babestea. Honek tokiko bulegoak (Barakaldoko Inguralde) barnebidu behar ditu. Eskualdeko beharretara moldatu, haren finantziaketa eta koordinazioa hobetuz.
 - Industria-politika aztertzea; eta tokiko eragileekin batera plangintza bat garatzea.
 - Industria-enpleguari begira, formazioa babestea.
 - Politika guztien emaitzak etengabe ebaluatzea.
- **Krisialdian dauden enpresentzako arreta protokolo osoa** sortzea; ikuspegi hauek kontuan hartzeko:
 - Enpresa komiteari aholku-laguntza eta babesa emateko.
 - Jaurlaritzarekin koordinatzeko.
 - Enplegatuentzako aholku-laguntza.

- Enpresa berrabiarazi nahi duten langileen alde egitea.
- **Unibertsitateekin, irakastegiekin, Eskualdeko Garapen Bulegoekin, eta lurraldeko teknologia-parkeekin lankidetzaz hitzarmenak suspertzea;** zertarako eta enpresen berriztapena zein I + G + bko inbertsioak sustatzeko.

Merkataritza

Merkataritza tokian tokian sustatu behar den jarduera ekonomikoa da, gure kaleak, auzuneak zein herriak bizitasunaz betetzen dituelako, eta giza-harremanak garatzeko aukera paregabeak ere eskaintzen dituelako. Salgune handiak zabaltzen diren bakoitzean, lanpostuak sortuko direla esaten digute, baina tokiko merkataritzan lana galtzen duen jendea ezkututzen digute, eta gure herriek zenbat galtzen duten ere bai.

Oso kezkarria da azken urte hauetan sektore honek igarotzen duen egoera. Bertako langileek pairatzen dituzten lan-baldintzak kaxkarrak dira; etengabe ari dira pertsiana jaisten negozio asko; erreleborik ez dago zeren negozio handiak txikiari kentzen baitio arnasa, ... premiazkoa deritzogu egoera honi buelta emateari.

Gure herriko dendariak gure bermea izango dute baldin eta jendarteko kultura-jarduera sustatzeko eta dendarien eta kontsumitzaileen arteko komunikazioa bideratzeko proiektuak garatzea helburua badute. Garrantzizkoa da, era berean, merkatarien elkartearen arteko lana sustatzea gizarte-eredu ekonomikoa zuzena eta iraunkorra suspertzeko ekimenak martxan jartzeko.

Proposamenak:

Tokiko kontsumoa sustatu nahi dugu. Horretarako proposatzen dugu:

- **Barakaldoko oraingo udal azokak berpiztea:**
 - Bertako produktuak salerosten dituzten saltokiak eta kontsumo arduratsua sustatzea eta babestea. Saltoki berriak zabaltzen saiatzea. Ez bakarrik tradizionalak (harategiak, arrandegiak, fruta dendak, ...) baizik eta tankera berrikoak ere bai (bigarren eskuko arropak, kilokako salmentak, plastikorik gabeko dendak, ...)
 - Hilabeteroko azoka bat egonkortzea.
- **Merkataritza txikia salgune handietatik babestea:**
 - Salgune handi berrien zabaltzea edo daudenen handitzea legez mugatzea.
 - Jai-egunetan ez irekitzearen alde egitea. Ohiturazko ordutegitik kanpo irekitzea ahalik eta gutxien. Honela babesten da deskantsurako eskubidea. Izan ere, ordutegiak liberalizatzeak bakarrik salgune handiei egiten die mesede.

- “Denda tradizionala” edo “denda historikoa” bezalako kontzeptuak sortzea. Kultura eta arkitektura-ondareak bihurtu diren komertzioak babesteko.
 - Merkatarien elkarteek duten funtzioa ezagutzea eta haiei instituzio-babesa ziurtatzea. Berdin sektoreko sindikatuentzat.
 - Hiri barneko zamaketa guneen ordutegiak handitzea, merkataritza txikiaren hornitzea eta banatze lanak ahalik eta gehien errateko.
 - Udal Erakundeetatik bertako kontsumoa pizteko kanpainak garatzea.
- Ostalari eta merkataritzako **profesionalentzat TAO txartel berezia sortzea**, eguneko prezioa 1,29€ gainditu gabe.

Hedabideak

Komunikabideen antolaketa gai garrantzitsua da Euskal Herrian. Kulturarik ez dago komunikaziorik gabe. Kultura guztiak komunikatuta egon behar dira bizirik irauteko; are gehiago gaurko jendarte mediatikoetan.

Argi dago euskal esparru komunikatibo propio eta finkoaren falta euskal komunikazio agendaren faltaren oinarrian dago. Bizi dugun komunikazio-esparruan, kanpoko eragileak erreferenteak izaten dira, are gehiago azken hamarkada hauetan digitalizazioa eta jendarte sareek ezagutu duten hedapenarekin. Herria eta nazioa nahi badugu izan, komunikazio-esparru propio eta finkoa lortzea ezinbestekoa da; eremu publiko zein pribatuetan oinarrituta.

Esparru honen bereizitasun bat euskara izango da. Herriaren ekimenaz sortutako tokiko komunikabide idatziek zein ikus-entzunezkoek komunikazio-sare oso interesgarria ehundu dute azken hamarkadetan. Sarritan ere interesgarriagoa sektore publikoko komunikabideek lortu dutena baino. Batzuek zein besteek lortutakoa defendatzea izango da gure xedea.

Proposamenak:

- **Udal komunikabideen erabilpen araudia** sortzea; erakundetik ateratzen den publizitatea eta udal webgunearen bidezko erabilpena arautzeko.
- Diru publikoarekin lagundutako komunikabideei, **euskaraz gutxieneko ekoizpena galdatzea**.
- **Euskarazko komunikabide guztiak babestea eta laguntzea**, hitzarmenak eginez, diru-laguntza lerroak zabalduz eta erakundeetatik ateratzen den publizitatea bertara bideratuz.
- Tokiko komunikabideak babestea; komunikazioko herri ekimenak babestea eta saretzea.

Herri programa

2019

Barakaldo duina

ehbildu

Enplegua

Enplegua oinarrizkoa da pertsonen bizitzarako. Honen arrazoi nagusia hauxe da: enpleguarekin lotuta dagoen ordainsaria diru-sarrera nagusia, eta bakarra ere, izaten da pertsona gehienek kasuan. Ez da, beraz, harriztekoa enplegua hiritarren kezka nagusia izatea. Aurreko garaietan ez bezala, gaur egun kezka horrek bi ikuspegi ditu: enpleguaren balizko falta, eta enpleguaren kalitatearen falta, enplegua badago ere.

Enpleguaren auzia ezin da deslotu berarekin etortzen diren hainbat inguruabarretatik. Alde batetik, lan ugalkorraren aintzat ez hartzea, eta bere banaketa desorekatua eta zuzengabea emakumeen kalterako; Bestetik laguntza ekonomikoa eta jendarte-laguntzak jaso behar dituzten langile-kopuruaren gehikuntza. Multzo honetan ez dira sartzen langabeziaren prestazioa jasotzen dutenak; ez eta, prestazio hori galdu dutenak langabetu iraunkorrek direlako ere. Hala ere, barnean daude lansari bat jaso arren, estutasun gorrian bizi izaten direnak ... azken urteotako lan-harremanen zein lan-sarien behin-behinekotasun prozesuaren biktimak.

Proposamenak:

Gure helburua enplegu-politika osoa eta eraginkorra ezartzea da. Honela, jendarte aurreratu baten desioarekin bat eginik, gure industria-ehuna etorkizunean ere irauteko estrategia baten barruan. Horregatik zerak proposatzen ditugu:

- **Udal enplegu publiko gehiago sortzea.** Kudeaketa gardena eta zuzena lortzeko, publiko bihurtu behar dira udal zerbitzu publikoak.
 - **Langileen behin-behinekotasunaren tasa gutxitzea** Udal zerbitzuetan.
 - Oraingo enplegatuen zerrenda **subrogatzea**.
 - Ordezkapenak eta hasten diren langile berriak hobeto kudeatzeko Udal **lan-poltsa zabaltzea**.
 - Herri **lanpostuak berreskuratzeko**, eta langile publikoen eskubideak berreskuratzeko **plangintzak** martxan jartzea.
- **Herri Lanak eta Zerbitzuak lehiaketa publiko** baten bidez esleituko dira, oro har.
- **Klausula sozialak** (lan eta giza-harremanak, ingurumena, hizkuntzazkoak, berdintasunezkoak, ...) betetzen direla **bermatzea herri kontratazioetan**.
 - Klausula hauek betetzen diren egiaztatze kontrol-tresnak jartzea.
- **Sektore eta Zerbitzu feminizatu**etan, bereziki, langileen **lan-baldintzen hobekuntza** eta baldintza duinak bermatzea esleipen guztietan.
- **Aldi baterako enpresak ez kontratatzea.** Gainera, mota horretako enpresak kontratatzen dituzten agenteekin udalekiko lan- eta kontratu-harremana birpentsatzea.

- **Formaziorako eta lanerako ekimenak antolatzea;** bereziki sektore erromestuei zuzenduta (emakumeak, gazteak, iraupen luzeko langabetuak, funtzio-aniztasunezkoak,...)

Politika soziala

Ongizate Estatuko oinarria dira jendarte-zerbitzuak. Eskubide unibertsal zein subjektibotzat jo behar dira. Hala ere, gaurko sistemak oraindik ez ditu erabat bermatzen eskubide horiek: finantziario eskasa, pribatizaziorako joera trinko, eta herrialdeen arteko desoreka galantagatik.

Krisiak iraun duen bitartean, jendarte ongizaterako oinarrizko eremuetan murrizketa basatiek ondorio lazarriak ekarri dituzte. Ondorio horiek etxeokoe, eta nabarmenki emakumeek, xurgatu dituzte. Ekonomiaren hazkundearen berreskurapenak sistema publikoari eskatzen zitzaizkion zainketen inhibizio artifiziala ekarri du. Herabetasun eza horrek ez du erantzunik jaso administrazioaren aldetik, eta horregatik zainketen ardura nagusia emakumeengan dago oraindik ere.

Zainketen krisiaren aurrean, gure lana eta helburua zainketa duinak eta kalitatezko zainketak bermatzean datza, hala zaindariantzat nola zaindutakoentzat; eta hori bi esku-hartze lerrotan: alde batetik, zerbitzugintza egokia garatzea guztien askatasuna bermatzeko, zaintzak behar dituenarena, zainduta izaten aukeratzeko ala ez; eta baita zaindaria izatera behartuta sentitzen denarena, emakumeak nagusiki. Bestaldetik, behar den finantziarioa lan-sari eta ematen diren zerbitzu duinak bermatzea; langile haien lan-eskubideak errespetatzea eta haiek jendarteari ekartzen diotena agerian uztea. Batzuei zainketa duinak emateak ezin du ekarri zaindarien lan-baldintza kaskarrak edota nahi ez duten bestelako betebeharren inposatzea.

Proposamenak:

- **Oinarrizko Jendarte-Zerbitzuetako langile-zerrenda handitu.**
- **Oinarrizko Jendarte-Larrialdietarako Zerbitzua sortzea.** Honek berehalako erantzuna emateko prozesuak eta bitarteko nahiko izan beharko luke, eragile guztiak inplikaturatuta egonik.
- **Dauden laguntza guztiez informatzeko estrategia prestatzea.** Honela, Udal instituzioa hurbilduko zaie zerbitzu hauek behar dituzten erabiltzaileei; alderantziz izan beharrean.
- **Aterpeko lekua handitzea;** edo leku publiko bat gaitzea neguan dagoen eskaerari erantzuna eman ahal izateko.

- **Udal Aterpean ere, genero ikuspegia sartzea.** Etxerik gabeko emakumeentzat berariazko laguntza-baliabideak sortzea.
- Behar diren **Jendarte-larrialdietarako diru-laguntza (JLDL)** guztiei erantzuna eman ahal izateko, **diru-partidak bermatzea**, familien oinarritzko beharrak asetzeko.
 - Jagoleentzat atsedenaldiak aurreikustea. Atsedenaldi hauetako programetan ahalduntze-ekimenak egongo dira, zainketen ikuspegi kritikoa garatzen joateko, eta gizonezkoekin batera erantzukizun zuzena lantzen joateko.

Zerbitzu publikoak

Krisialdi ekonomikoa bitartean, eta horren aitzakiarekin, oinarritzko babesa, aukera berdintasuna eta bizitza proiektu guztiak garatzeko baliabideak murrizketen jo puntuan jarri dira. Murrizketak egon dira arlo guztietan; hala giza baliabideetan nola baliabide materialetan; hori dena zerbitzuaren kalitatearen kalterako, diru-ekarpenak gutxitzeko, eta zerbitzuaren estaldura murrizteko.

Herri baten duintasuna haien herritarren duintasunean oinarritzen da; horregatik kalitatezko zerbitzuak antolatzea eta eskaintzea herri politika guztien betebeharrak minimoena izaten da.

Datozen lau urte hauetan gure helburu nagusia egondako murrizketak eta horiek ekarri dituzten ondorioak atzera botatzea izango da. Oraingo egoera irauli nahi dugu, galdutako eskubide asko berreskuratuz eta, jendarte babesaren arloan, Europak dituen mailarik altuenetara iristen saiatuz. Hori guztia ez da posible izango sektore publikoko langileen elkarlanik gabe; horretarako horien lan-baldintzak duintzea eta hobetzea izango da lehenengo urratsa.

Proposamenak:

- **Herri zerbitzu zein instalazioen kudeaketa zuzena.**
 - Kalitatezko zerbitzu publiko duin eta sozialen alde lan egitea; pertsona ororen beharrianak lehenatasuna izanik.
 - Hiritarren egiazko parte-hartze eraginkor eta loteslea sustatzea, beti ere, dauden errealitateei zein beharrei moldaturik, plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa egiteko momentuetan.
 - Herri-sektoreko kontratazioetan jendarte-klausulak sartzea.
 - Jendarte-erantzukizun klausulak sartzea, herri-sektoreko erosketa guztietan; eta haien betetzeari jarraipena egitea.
- **Herri zerbitzuen pribatizazioa gelditzea.** kudeaketa gardena eta zuzena bermatzeko, Izan ere, Udalak eskaintzen dituen zerbitzu gehienak esku pribatuetan daude. Gure asmoa ahalik eta

lasterren berriro udalekotzea izango da; beti ere, baliabide tekniko nahikoz eta giza-baliabide egokiez hornituz, eta lehenasunez zerbitzu hauek:

- **(E.L.Z.) Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua**, mendekotasun egoeran dauden pertsonen zuzenduta.
- **TAO zerbitzua.**
- **Lehen Hezkuntzako atezainak.**
- **Udaleko kirol zerbitzuetako langileak:** hasi administrazioko langileekin eta monitoreekin bukatu.
- **Kultur Etxeetako langileak.**

Udalak sortuko dituen **lan-poltsatik** aterako dira langileak lanpostu horiek edo berriak betetzeko edo balizko bajak zein ordezkapenak betetzeko.

- Gainerako herri zerbitzu **pribatizatu zein kanpora utzitakoen egoera aztertzea, eta haien pixkanakako municipalizazioari ekitea;** ahal izango den neurrian.
- **Gardentasuna sustatzea,** eta hiritarrei herri informaziorako sarbideak erraztea.
- Herri zerbitzuetan lan egiten duten profesionalen artean **nahitaezko genero formazioa ezartzea.**
- **Udaltzaingoa hurbiltasunean oinarritutako eredua** sartzea; **“auzuneko poliziaren” irudia indartzuz.**
 - Auzuneko udaltzaina eta merkatarien arteko harremana indartzea. Berdin, ostalaritza, auzo-elkarte zein irakastegietan. Eragile horien guztien artean aldizkako bilerak egitea ikuspegiak eta grinak partekatzeko, eta komunikazio sistema zuzena ezartzeko, posta elektronikoko baten bidez, berehalako erantzunak eman ahal izateko.
 - Udaltzain kopurua Europar Batasunak gomendatzen duen ratoria gutxika egokitzea.
 - Etorkizuneko udaltzainak udalak berak sortutako LEPen bidez (Lan-Eskaintza Publiko) sailkatzeko eredu batera jotzea.
 - Herri eraikinen seguritate pribatua kentzea, eta bigarren jardueran dauden udaltzainekin bermatu, hau da patruilan ibiltzen ari ez diren udaltzainekin.

Adinekoak

Pertsona nagusiek osatzen duten jendarte-sektorea gogor erasotua izaten ari da. Azken hilabete hauetan haien aldarrikapenek gure kaleak bete dituzte. Erretiro duina eskatzen dute; izan ere, sektore honen egoera larria estrukturala da; hau da, ekonomiaren arlo guztietan dauka isla. Pentsio publikoen kontrako erasoak egon dira, haien eskurapena zailduz edo haien balioa etengabe gutxituz; horrek ekarri du pertsona horien eskuratzeko-ahalmenaren galera nabarmena. Gure nagusien bizitza kalitatearen endekapena muga guztiak ari da gaintitzen; aipatzekoa da emakume alargunen kasua, haiek baitituzte pentsiorik baxuenak.

Orain burutzen diren politika publikoek zailtasun handiak dituzte pertsona nagusien autonomiaren galerari koherentziaz eta modu egokian erantzuteko. Besteak beste gabezia handiak daude pertsona nagusien beharrak asetzea helburua duten politiketan: adibidez, autonomiaren galeratik datozenak, bilatuta ez den bakartasuna, eta pertsonaren zainketa orokorretik eratorritakoak ... Arlo pertsonalaz haratago, publikoan ere badaude gabeziak behar horietara erantzuteko politiketan: hirigintza, laguntza teknikoak, garraioak, jendarte-laguntza...

Pertsona nagusi guztientzat bizi-baldintza duinak sortzea dugu helburu; hasi pentsio duinetik, jarraitu osasun zerbitzuarekin, etxebizitzarekin, eta parte-hartze aktiboarekin bukatu... Eta hori guztia, pertsona horien aniztasuna begi-bistatik galdu gabe; errespetua eta duintasuna bermatzea da gure helburua.

Proposamenak:

- **Zahar-etxe publiko bat martxan jartzea**, menpekotasunik gabe edo etengabeko etxe-laguntza behar duten I mailako menpeko erabiltzaileentzat. Zahar-etxe publiko bat, erakundeen ardurapean, baliabide faltagatik bazterturik inor geratuko ez dela bermatzeko.
- **Menpekotasun egoeran dauden pertsonen sistema publiko baten bitartez arreta ematekoaren alde egitea**. Honek bakarrik bermatuko du inor ez dela bazterturik geratuko diru faltagatik, behar duen arreta eskuratzerakoan.
 - Arreta eskaerak tramitatzekoan bizkortasuna.
- **Eguneko zentroak handitzea**. Zerbitzu hau emateko leku berriak gaitzea; **horretarako leku berriak erostea**, edo **udal gunekak utziz**. Gainera, **orain dauden espazioak egokitzea**, batzuek gabetasun larriak baitituzte.
 - Mota honetako zentroyen eskaintza handitzea, eta bertan ere zerbitzu berriak eskaintzea: adibidez, etxez etxeko catering zerbitzua bakarrik bizi diren nagusientzat.
- **Tutoretzapeko egoitza eta etxebizitzak**.
 - Itunpeko egoitza pribatuetan dauden nagusiei jarraipen estuagoa egitea asebetetze-inkesten bitartez.
 - Hurrengo zortzi urteko aldirako egoitza publikoen sarea indartzea; eta horretarako zentro publikoak lehenetsi, zentro pribatuekin itunak egin ordez.
 - Nagusien egoitzetako plazen prezioen igoera geldiaraztea.
 - Bertako langileen lan-baldintzen hobekuntzaren alde egitea; baita, zerbitzu medikua eta laguntza-zerbitzua ematen dutenarenak ere.
 - Aroko erabiltzaileentzat leku batzuk erreserbatzea.
 - Etxebizitza babestuetako leku publikoak zabaltzea.

Nagusiek berariazko interesguneak badituzte, gainerako pertsona “helduekin” partekatzen dituztenak aparte utzita. Gaur arte, aipatutako interesguneei ematen zaien erantzuna Anaien Parkean astero antolatzen diren dantzaldiak baino ez dira. Gure ustez, pertsona horien interesguneak haratago doaz, eta askozaz ere zabalagoak izaten dira:

- **Barakaldo Antzokiko programazioan** hilabeteko **egun bat** gordetzea pertsona horien **interesguneei erantzuna emateko** (Osasuna, bizipenak partekatzeko topaketak, edo eskarmenduzko ezagupenak gazteei transmititzeko ekimenak)
- Kantatzeko esparru bat gaitzea. Holako **Kantagune** bat adin guztietako pertsonari egongo da zabalik, eta gure auzuneetako plazetatik txandaka igaroko da. Herrian dauden abesbatzekin lankidetzan antolatuko da eta gure inguruko kantak berreskuratzea eta ezagutaraztea izango du helburu. Elkarrekin kantatzeak herri bihurtzen gaitu.
- Elkarrekin dantzatzeak ere herri bihurtzen gaitu. **Dantzagune** bat antolatzea adin guztietako pertsonari zabalik, Barakaldon dauden dantza taldeekin lankidetzan, eta euskal folkloreko dantza errazak dantzatzen ikasteko.
- **Osasunguneak** ezartzea, hiriguneko parkeetan, batez ere, eta **parkeetako gune estalietan**, ahal baldin bada: Anaien parkean, Lasesarre parkean, Munuan...

Etxebizitza

EH Bilduren jardura politikoaren helburu nagusietariko bat hiritar ororentzat bizi-baldintza duinak bermatzea da udal arloan zein udalaz gaineko administrazio guztietan. Horretarako etxebizitza duin, egokia eta eskuragarria lortzeko eskubidea ezinbestekoa da. Eskubide subjektibotzat hartu ordez, merkatuak ondasun espekulatibotzat hartzen du etxebizitza; ondorioz, pertsona askok ezin dute pagatu etxebizitza, ez eresia, ez eta alokairuan ere; horregatik familia ugari kaleratuak izan dira etxe-gabetze prozesuetan...

Gazteengan, larriagoa izaten da arazoa. Haiek aurkitzen dituzten zailtasunak bizitza-proiektua garatzeko handiagoak izaten dira; Egun, gure gazteek larriturik begiratzen dute etorkizunera. Oso gatza ikusten dute familiaren loturetatik askatzea. Horrek dakartzan ondorioak larriak dira beraientzat zein jendarte osoarentzat. Beraz, trinkoa izango da gure apustua: neurriak hartu behar ditugu gazteen burujabetze hori errazteko eta bideratzeko; etxebizitzatik hasita.

Gure hiritargoaren zati handi batek pairatu dituen bi kalteok ez dute oraindik irtenbiderik; Etxe-gabetzeak, alde batetik; haietariko asko instituzio publikoei alokairua ordaintzeko ezintasunagatik sortuak; eta bestetik, baliogabetutako klausulek edo gehiegizko klausulek ezartzeagatik sortu diren egoera zuzengabeak. Bidegabekeria hauek gainditu behar ditugu behin-betiko. Gure helburu orokorra etxebizitzaren funtzio soziala berreskuratzea da. Horretarako badugu deliberamendua gure esku

dauden baliabide guztiak erabiltzeko; Etxebizitzaren Legea eta hirigintza horretarako tresnarik garrantzitsuenak izanik.

Proposamenak:

- **Hutsik dauden etxebizitzak alokairuzko merkatura** ateratzen laguntzea:
 - Etxebizitzaren oraingo beharraz zehatz ikertzea; baita ere oraingo etxebizitza-parkea, herrian dauzkagun etxebizitzak ahalik eta zehatzen zenbatuz.
 - Udaletzetik Alokabide eta hutsik dauden etxebizitzaren jabeen arteko harremana sustatzea. Etxebizitza hori alokagai jartzeko abantailaz informatzea, eta jendarte- alokairuan jartzearen alde egitea.
 - Gazteentzako jendarte- alokairuetara sarbidea erraztea.
 - Toki babeseko etxebizitzak eskuratzeko gutxieneko baldintza ekonomikoak gutxitzea.
- **Etxebizitza partekatua erabiltzeko programak martxan jartzea** udalerrri honetan. Programa horiek funtzio- aniztasuna duten pertsoneri, jendarte- bazterkeriaren kontrako programetan parte hartzen duteneri, edo haien borondatearen kontra bakarrik bizi diren pertsona nagusiei zuzenduko zaizkie. Gastuak partekatzea, edo jendarte- zein pertsona autonomia sustatzea izango da helburua.
- **Mugikortasun eta seguritate- beharretara etxebizitzak moldatzeko Aldundiak** jada ematen dituen **diru- laguntzak** udaletzetik **arintzea**:
 - Komunean euskarriak jartzeko.
 - Bainontziak dutxekin ordezkatzeko.
 - Butanozko sukalde elektriko jartzeko.
 - Energia- zein seguritate- zioengatik leihoak aldatzeko.
- Etxebizitza- erkidegoak errenta eskasa duten pertsonen mugikortasun- zein seguritate- beharretara moldatzeko **udal diru- laguntzak** ematea.
 - Igogailuak zero- kotaraino jeisteko.
 - Bestelako irtenbiderik ezinezkoa izanez gero, kremlera- aulkiak ipintzeko.
- Hirigintza- ekimen pribatuetatik udaletxeak eskuratzen dituen etxebizitzekin, **Udal Parkea osatzea**. Etxebizitza- parke hori larrialdi- egoeretan dauden beharretara zein jendarte- alokairua behar dutenentzat gordetzea.
 - Udal etxebizitza esleitzerakoan, kontuan hartuko dira ahultasun berezian dauden taldeak: (gurasobakarreko familiak, familia txiroak, indarkeria matxistaren biktimak ...)
- **Kaleratzeen kontrako udal protokoloa osorik betetzea**: jabedun edota alokairupeko kasuetan.
- Oinarrizko zerbitzu eta prestazioetarako **eskubidea biztanle errolda unibertsalez** neurtzea: (Osasuna, heziketa, jendarte- laguntza ... guztientzat).

Herri programa

2019

Barakaldo jasangarria

ehbildu

Bioaniztasuna

Bioaniztasuna ekosistemak, inguruan ditugun espezieak eta geneak- gure bizitza-asegurua dira. Elikagaiak, ur edangarria eta aire garbia eskuratzen dizkigu; naturaren endekapen, izurrite eta gaixotasunen efektuak baretzen ditu bioaniztasunak. Klima orekatzen ere laguntzen du.

Natura kapitala ere bada, zeren eta behar ditugun ekosistema-zerbitzuez hornitzen gaitu. Hots, bioaniztasunaren galera, klima aldaketarekin batera, ingurugiroaren kontrako mehatxurik arriskutsuena da mundu mailan; eta pertsonen etorkizuna zalantzan jartzen du.

Pertsonaren eragin kaltegarriak espezieen desagertzea biderkatu du, modu naturalean baino askoz azkarrago. Erritmo horrek ez dauka parekorik bizitzaren historian zehar. Galera erritmo hori moteldu edo gelditu behar dugu Bioaniztasunaren Estrategia martxan jarritz, Europak proposatu duen bezalaxe.

Ur, lur eta airearen kutsadurak ezabatu behar ditugu, natur baliabideak defendatu behar diren ondasun publikotzat joz, eta pribatizazioak eta ustiapen basatiak ekartzen dituzten arriskuetatik babestuz. Aldi berean, jarduera kutsagarriei jarraipen estua egin behar diegu. Azken hau bereziki garrantzitsua da Barakaldon, non lindanoaren presentziagatik ura eta lurraren kutsadura arazo larria izan eta izaten den, oraindik ere.

Proposamenak:

- **Argalarioko lindano-gordailuko edukiari behin-betiko irtenbidea** bilatzea, zeren eta gordailu hura behin-behineko irtenbidetzat hartuta eraiki baitzen duela bi hamarkada.
 - Aurkitu bitartean, edukiaren mantenimendua eta hermetikotasuna zaintzea.
- **Lur-zoru kutsatuen katalogoa berrikustea, eta zoru horiek garbitzeko egitasmoa sortzea.** Oso gai garrantzitsua da guretzat, gure industria-iraganagatik.
 - Zoruaren ezaugarritze- ikerketa egiteko konpromisoa, non eraikin berriak edo, egiteko lurra arakutzen den bakoitzean, balizko lur kutsatuak identifikatuko baitira.
 - Zabortegeiak eta eremu kutsatuak identifikatzea eta ezabatzea. Balizko kutsadura horrek inguruko ibaiak zein ur-korronteak ez kaltetzeko neurriak hartzea.
 - Inguruko udalekin koordinaturik, beharrezkoak diren eskaerak Aldundira eramatea.
- Barakaldon **egiten diren ur edangarriaren azterketetan lehentasunezko gai arriskutsuen zerrenda erabiltzea** (bertan lindanoa agertzen da), bainatzeko uraren azterketetan egiten den bezala.
- Barakaldoko **saneamendu-sare zaharra berrikusteko eta kentzeko konpromisoa**, amiantoa badauka-eta.

- Ibaizabal, Castaños, Kadagua y Galindo **ibai-ertzeak aisialdirako eremuak bihurtzea**; bertan hiri-ibilbideak eta bidegorriak eginez. Ibai-ertzeak garbi mantentzeak uholdeen ondorio kaltegarriak ekiditzen edo gutxitzen laguntzen ditu.
- **Landa-inguruaren garatzeko laguntzak eskuratzea**. Honen helburua gazteak lehen sektoreko nekazaritzara zein abelzaintzara erakartzea litzateke.
- **Hiri-ortuak sortzen errazteko** argindar- eta ur-horniketarako dohainik eskaintzea. Ekologia zein nekazaritza tradizionalen interesa duten pertsonentzat aisialdi-hautabide osasungarria izan liteke.
 - Ikastegietan ere hiri-ortuak sortzea.
- **Kontsumo-taldeak** sortzea. (Erregularitasunez eta elkarrekin zuzenean nekazariari edo ekoizleari, elikagai-produktuak erosten dizkieten pertsona taldeak) Talde hauei udal merkatuetan edo lekuak uztea, eta informazio kanpainak eginez, kontsumo mota hau suspertzea.
- **Eremu elektromagnetikoak eta sare elektrikoko transformadoreak** eta azpiestazioak **pantailaz estalita daudela bermatzea**, osasunerako kaltegarriak ez izateko; batez ere, ospitaleak edo ikastetxeak bezalako minberatasun handiko guneetan (Bagatza eta Arteagabeitiako ikastetxeetan bezalaxe)

Hondakinak

Materialen zikloa ixten duten Hiriko Hondakin Solidoen (HHS) kudeatze eta tratamendua (birziklapena errazteko, gai ezberdinen bilketa berezitua). Prozesu hori hiritargoak kontzientzia hartzeko tresna paregabea izaten da, horren eragina gainerako arloetara ere zabaltzen delarik.

Orain batzuk zabaltzen ari diren HHSen kudeatze zein tratamenduaren eredia erretzean oinarritzen da. Erretzearen alde jotzeak birziklatzea baztertzea dakar. Bizkaiak HHSren %40 besterik ez du birziklatzen; gainerako euskal lurralde guztiak baino gutxiago. Azken hamarkada hauetan gure jendartea “erabili eta bota” izeneko filosofia arduragabea hezi da. Eredu horretatik ihes egin behar dugu eta beste eredu berri bat sortu, non hiritargo arduratsuak ere prozesuaren hasieratik lagun dezakeen, “hondakin zero” helburua lortzeko.

Horretarako, nahitaez kontsumo arduratsuaren ohiturak zabaldu behar dira prozesuaren hasieran. Gutxiago kontsumitzea, baliabide gutxiago xahutu gabe, hobeto bizitzea eta ahalik eta hondakin gutxiago sortzen duten produkzio sistemak sortzea.

Oraingo birziklapen tasa gutxienez %50ean gehitzea dugu helburu; horretarako Bildu, Birziklatu eta Berrerabiltzeko (BBB) azpiegitura sarea taxutu eta eraiki nahi dugu. Kutsatzen duenak gehiago ordaindu behar izango du. Fiskalitateak mesede egin behar dio birziklatzen duenari. Birziklatzeko ahaleginik egiten ez duten enpresek eta hiritarrek hondakinak kudeatzeko baliabideak erabiltzen dituzten udalen eta instituzioen gastua gehitu egiten dute.

Ez da onargarria, beraz, gehiago kutsatzen dutenek eta gastu gehien sortzen dutenek tasa berdinak edo standarrak ordaintzea.

Proposamenak:

- **Bosgarren edukiontzia (zabor organikoa)** auzune guztietan ipintzea.
 - Erabilpen zuzena bermatzea informazio kanpainak eginez. Beti ere, zabor-ekoizle handiak (ikastetxeak, jantokiak, egoitzak, ...) eta auzokide arruntak.
 - Poltsa biodegradagarriak erabiltzea erraztu, bosgarren edukiontzia erabiltzenerako beharrezkoak direlako. Poltsa hauen hornigailuak ipintzea auzo guztietan.
 - Bosgarren edukiontzia jartzea ikastetxe guztietan, zabor-ekoizle handiak direlako eta umeak birziklapenean hezitzeko aukera paregabea delako.
 - Zergak jaisteko neurriak hartzea birziklatzeko ohiturak suspertzeko.
- **Nork bere kompostatzea sustatzea;** banakako zein udal mailan.
- **Hondakinen kudeaketarako** kontratuaren oraingo egoera aztertzea eta **udal eskuetara berriz ekartzeko aukerak aztertzea.**

Basogintza

Basoko ekosistema osasuntsu eta indartsuak ezinbestekoak dira bizitza kalitate egokia bermatzeko. Barakaldoko udalerraren %70a landakoa da. Basoek laguntzen dute ura eta lurraren kalitatea hobetzeko, eta gas kutsakorrak (CO₂) xurgatu eta oxigeno bihurtzen dute, negutegi efektua honela gutxituz; gainera bertan bizi diren animalia zein landare espezie askoren babeslekua izaten da basoa.

Basoak, zenbat eta osasuntsuagoak, hainbat eta onuragarriagoak izango dira sortutako efektuak.

Egurraz aparte, bioaniztasunaren indarketarekin batera garatzen diren hainbat gauza eskaintzen digu basoak. Beraz, ustiapen trinkoa eta bakarretik urrundu behar ditugu, bestelako ikusmoldeak sustatu bidean: paisaia, turismoa, mikologia, abeltzaintza ...

Ikusmolde hauek, kalitatezko enpleguak sortzen laguntzeaz gain, sektoreak orain bizi duen krisialdia

gainditzeari lagunduko dio. Landako Barakaldok lanpostu horiek behar ditu; Orain daudenak bermatzeaz gain, sektorea indartzeko espezializazioa eta profesionalizazioaren bidetik abiatu behar da.

Proposamenak:

- **Baso ekosistemaren beste erabilpen iraunkor batzuk sustatzeko egitasmoak** garatzea; turismo, nekazaritza edo abeltzaintza iraunkorrak, kasurako.
 - Gure landa-inguruan dauden paisaiak eta interes historikodun lekuak ezagutaraztea eta babestea. La Balsa eta El Regatoko zamategiak, kasurako.
 - Barakaldoko espezie autoktonoak babestea eta mantentzea. (aritzak, gurbitzak, gorostiak, ...)
 - Barakaldoko inguruko mendiak, ibilbide berdeak eta baso-ibilbideak egokitzea, bertara turismo berdea erakartzeko.
 - Errekatxo, Arnabal eta Zuhaiztietako ibilbideak, eta Errekatxo-Burtzako bide zaharra seinaleztatzea, eta baso-ibilbide berriak bihurtzea.
 - Orkonerako bidea berreskuratzea; bertan ibilbide berdea egitea, Trapagakoarekin lotuz.
 - Diru-laguntza berriei eragitea “Agirre” kereziondo autoktonoa berreskuratzeke.
- **Sektore honekin lotutako enplegua birsortzeko egitasmoak** bultzatzea:
 - Basoko agentearen irudia gotortzea, udal Lanpostu Zerrendan sartuz.
 - Mendi zein bideak mantentzeko, ibilbideak seinaleztatzeke, suteak aurreikusteko eta hiltzen laguntzeko, eta landa gunek kontrolpean edukitzeko baso-lantaldea sortzea.
- Enplegua sustatzeko egitasmoetan, **lehen sektorean jardun nahi duten gazteentzat laguntzak eta bermeak** sartzea.
- **Baso kudeaketa iraunkorraz, dibertsifikazioaz eta bioaniztasunazko ikastaro** jarraituak egitea; **genero ikuspegia** ahaztu gabe.
- **Ibilgailu motordunei mendira sartzeko aukerak kontrolatzeko** helburuarekin **kanpainak** egitea.

Animalien eskubideak

Animalien ongizateaz ere pertsona askok duten kezka partekatzen dugu EH Bildun; proposamen batzuen bidez horien eskubideen babesa ziurtatu nahi dugu; horretarako aipatutako eskubideen errespetua eta babesa bermatzeko, araudia batzuk egikaritu nahi ditugu.

Izan ere, edozein baliabide publikoren erabilpena galaraziko dugu animalien tratu txarrak dakartzaten jaiak, ikuskizunak, kirol-probak egiteko baldin bada.

Proposamenak:

- **Ikuskizunetan, zaldiketetan, herri-jaietan, ... animalien erabilpena debekatea, baldin eta animalianganako ankerkeria, sofrikarioa edo nolabaiteko tratu txarrak ekartzen baitituzte.** Sormena jarri behar dugu martxan aisialdi etiko hautabideak eskaintzeko, animalien sofrikarioa sortu behar izan gabe.
- **Animalianganako errespetua erakusten duten hiritarren portaerak** urgaztea eta indartzea.
- Barakaldon dauden elkarte animalistekin, Naturgelarekin edo ikastetxeekin lankidetzan, udal erakundetik ere **laguntza-animaliak adoptatzearen aldeko kanpainak egitea**. Animalia hauek komertzializatzeko hezitzen dituzten saltegiei kontrajarritz.
- **Udal garraioetan elkarbizitza** oztopatzen duten arauak pixkanaka bertan behera uztea.

Azpiegiturak eta mugikortasuna

Barakaldon ekonomia ekologikoa sortzeko mugikortasuna bermatzen duten azpiegitura iraunkorrak behar dira. Hurbiltasun-haztapenaren inguruan eraiki behar da mugikortasunaren politika; honela izango da zuzena eta iraunkorra.

Orain arte indarrean jarri den azpiegitura handiak eraikitzeko politikarekin bukatu behar da lehenbailehen. Izan ere, diru-ezarpen politika basati honek hondamendia ekarri du gure administrazioetara.

Oraingo ereduaren mugak ageriak daude; beraz, ingurugiroaren ikuspegitik iraunkorra, eta jendartearentzat zuzena eta orekatua den eredu bat errebindikatzen dugu. Beraz, honelako garraio sistema iraunkor bat taxutu behar dugu: lurralde-ordenamendu arduratsuan oinarrituta, garraio publikoari lehentasuna ematen duena, eta orain diren azpiegiturak balioztatu eta horien erabilpena bultzatzen duena.

Pertsonentzat ez baizik eta autoentzat pentsatutako hiri batean bizi gara. Are gutxiago mugikortasun murriztua ego nolabaiteko menpekotasuna duten pertsonentzat. Gure herrian oraindik ere pertsona horiek kontuan hartzen ez duten espazioak badaude, oztopo ugari daudelarik.

Proposamenak:

- **Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana (MJP) sortzea Barakaldon.** Hiritarren parte-hartzearekin, eta garraio publikoari dagokionez Barakaldoko benetako premiak jasoko dituen: ordutegia, maiztasuna, oinezkoen aldeak, bidegorriak, eta aparkalekuak, ...
- **Aipatutako MJPk KBusaren lineak berrantolatuko ditu.**
 - KBusaren linea berri bat sortzea urrun dauden auzuneak hiribarnera lotzeko (Kastrexana, Urgozo, Tranviarios, Santa María, ...) edo hurbilen duten metro sarrerarekin. Linearen ibilbidea egituratzean auzokideen iritzia kontutan hartzea.
 - Auzune guztiak lotzeaz gain, erabiltzaileak oinarritzko zerbitzuetara ailegatzeko balio duen ildoak taxutzen saiatzeari. Horretarako ibilgailu elektriko txikiagoak eta linea laburragoak zein maiztasun handiagokoak erabiliko ditugu.
- **Hegoaldeko Tren-Saihesbidearen** oraingo taxutze-proposamen ofizialari ezezko borobila Gorostitzako zonaldean izango lukeen ingurune-eraginagatik. Eztabaida soziala sustatzearen aldeko apostua.
- Oinezkoen joan-etorri ugariak dituzten **kale batzuk oinarritzko zerbitzuetara joateko bidean daude;** gainera, sarritan, oinarritzko zerbitzu horiek (osasun zentroak, egoitzak, ikastetxeak...) aldameneko auzunean egoten dira eta hara joateko orografia-arrakala handiak daude. **Kasu hauetan eskailera mekanikoak jartzea.** Adibidez:
 - Zuazo-San Bizente, (Eguzkiagirretik).
 - Lasesarre anbulategia (Munibetik).
 - Errekaortu-La Paz (Gurutzeta).
- **Zebrabideen berrikuspena:**
 - Espaloi-beheraguneak egitea oraindik ez dauden lekuetan.
 - Zebrabideak neurritzko altxatzea, oraindik altxatu gabe badaude. (Batzar Nagusiak, Anaien Parkearen ondoko bihurtzea, ...)
 - Altuegi dauden zebrabideak beharrezkoak, ibilgailuak matxuratzen dituztelako. (Ibaibe ibarra kalea, adibidez).
- Barakaldo eta Lutxanako **tren geltokietan** nasetara **sarbideak egokitzeko hertsatzea ADIFI.**
- Oraindik ez dituzten **autobusetan altxatze-plataformak ezartzeko premiatzea dagokion konpainiari.** Adibidez, Gurutzeta-Castro Bizkaibusean.
- **Hirien arteko bidegorriak egitea,** zerbitzuak konektatzeko gure herriko mugetatik haratago.
- **Hiri-altzariak berrikustea.** Erabiltzaile ohikoak diren nagusientzat altuera egokia eta bi aldeetako euskarriak eduki behar dituzte eserlekuek.

Herri programa

2019

Barakaldo justo

ehbildu

Parte hartzea

Boterearen egitura politikoak, udaletxearen dinamika eta kudeatze burokratikoak erabat zurrinak izaten dira gure udal erakundeetan. Hiritarren eremutik kanpo geratzen dira erabakiguneak, eta haien iritzia kontutan hartu gabe egiten dira gauzak; ideia hori aho- batez zabaldu da aspalditik.

Gardentasunaren izenean ekimen asko martxan jarri badira ere, aldaketa errealik ez da egon trantsiziotik heredatu ditugun egitura administratibo zaharkitu horietan. Gardentasunik ez duten egitura administratiboak ditugu eta haien kudeaketak ez dio lekurik uzten hiritarren parte hartzeari.

Hiri- herri- edo herrialde-proiektu bat sortzean, ezinbestekoa da hiritargoa protagonista izatea. Haiek erabaki behar dute; autonomoa izateko eta subjektu aktiboak izateko tresnak behar dituzte. Horretarako parte hartzea eta gardentasuna haztaperen filosofikoak eta nahitaezko tresnak dira. Hiritargoaren parte hartze aktiboa, kalitatezkoa, erabakigarria eraikitzailea eta eraldatzailea lortu behar dugu.

Proposamenak:

- Barakaldoko udaletxean, **parte hartze teknikoaren postua sortzea**. Prozesu parte-hartzaileek ez lukete Udal Gobernutik zuzendurik egon beharko.
- **Parte hartze prozesuak** abiarazteko berariazko **araudia sortzea**.
- **Informatzeko, elkartrukatze, eztabaidatzeko zein erabakitzeko guneak sortzea** auzo guztietan, populazio sektore guztietan (emakumea, gazteria, nagusiak ...) zein gai guztien inguruan (etxebizitza-politika, ekologia, etb...)
- **Eragile eta hiri-elkargoen parte hartzea zerbitzu publiko guztien planifikazioan** zein ekipamendua eta kalearen berregituraketan.
- Kultura, funtzio, zein belaunaldi **parte hartze ekintzailea sustatzea**, hau posible egiteko tresna guztiak hornitzeaz gain.
 - Sektore baztertuen presentzia eta parte hartzea bulkatzea eta erraztea.
- Udaletxean **hartutako erabakiez hiritarrak informatzea beti**. Horretarako behar diren tresnak gaitzea.
- Garrantzia berezia duten gaietan **hiritarrak kontsultatzeko tresnak eta baliabideak garatzea**: Herri-kontsultak edo erreferendumak, kasurako.

Feminismoa

Egun emakumeak onartuak dira aho-batez subjektu autonomoak legez; eskubideen parekotasunaren eremuan ere aurrerapenak egon dira. Azken urteotan, alta, eskubide horietako batzuk kolokan daude. Izan ere, krisialdia aitzakiatzat hartuta, eskubideak murrizteko neurri batzuk jarri dira indarrean. Neurri horien helburua genero-rolak indartzea eta gizon-emakumeen arteko menperatze-ereduan sakontzea besterik ez da.

Azken urteotako borroka feministari esker emakumeen eskubide formalak ugaritu egin dira; hala ere, egunez egun bereizkeria-egoerak eta eskubide horien murrizketak ari gara bizitzen oraindik ere.

Orain bortizkeria matxistak jendartean alarma piztu du. Honek eztabaidak pizten eta proposamen interesgarriak agertarazten ditu. Proposamen hauek azpimarratzen dituzte bortizkeria matxistaren adierazpen mota guztiak, eta ez bakarrik agerian gertatzen direnak. Haien guztien aurrean agertzeko moduak ari dira zehazten, zeharkako feminismoaren ikuspuntutik.

Gizon-emakumeen arteko parekotasunaren erronkak herri politika guztiak blaitu behar ditu. Heldu da momentua herri politika eraginkorra egiteko; beti ere, behar diren diru-ezarpenek lagunduta. Dena bortizkeria matxistaren izurriteari aurre egiteko. Gainera, oraingo politika egiteko moduetan pertsonen zaintza eta ongizatea lehentasuna izango dira; eta horretarako tresna guztiak aktibatuta behar dira sistemaren behin-behinekotasunetik ateratzeko.

Proposamenak:

- **Emakumearen Sailako aurrekontua handitzea;** Barakaldoko jendartean eragina duten politika feministak garatzeko eta gizo-emakumeen arteko benetako berdintasuna bulkatzeko.
- Barakaldoko **Emakumearen Aholku-Batzordea sortzea.** Hauxe izango da emakumeak eta Udalaren arteko komunikazio-esparrua eta bertatik bideratuko da emakume antolatuen mugimenduaren eragin politikoa.
- **Emakumearen etxea sortzea.** Esparru kolektibo honetan benetako berdintasuna lortzeko egitasmo zein baliabide guztiak barnebilduko eta bukatuko dira.
- **Indarkeria matxistaren kontrako sentsibilizazio kanpainak sortzea.** Herriko mugimendu feministarekin adostuta, ekimen hauek jendarte-taldeei, bereziki gazteei, moldatuta egongo dira. Bertan azpimarratuko dira indarkeria matxistaren modu guztiak, eta horien kausa.
- Barakaldoko **historian egon diren emakume ospetsuei buruz ikertzeko** eta haien **ondarea zabaltzeko udal diru-laguntzak aurrikustea.** Emakume hauen presentzia bermatzea hiri

esparruan tokiko izendegi publikoan islatuz. Izan ere, emakumeak ahazturik egon dira historian zehar, eta hori gure herriko kale-izendegian gaur egun ere nabarmentzen da. Bidezkoa da, ba, Barakaldoko historian eragileak izan diren emakumeak ezagutzea.

- **Tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeentzat, eta haien seme-alabentzat**, behar duten premiazko **arreta bermatzeko diru-partidak** bermatzea, egoera lazgarri hori arintzeko.
- **Indarkeria matxista pairatu duten** emakume zein adin gutxikoentzat ere **psikologia-arreta espezializatua bermatzea**, lehen momentutik eta prozesua bukatu arte.
- **Maskulinitate berrien** inguruko **tailerrak** sortzea.
- Barakaldoko **Hiri Antolakuntza Plangintza Orokorra berrikustea, genero ikuspegia kontuan hartuz**, eta behar diren aldaketak sartzea.
- **Kultura feministaren ikuspegia** sartzea **kultura-jarduera guztietan**:
 - Kultura-jarduera guztietan emakume kultur egileen presentzia orekatua.
 - Kultura-jarduera guztietan ikuspegi feministadun gai-zerrendetan sartzea.
 - Irakurketa feminista sostatzea. Liburutegietan erabileremu honekin liburu-sailak zabaltzea.
- **Autodefentsa feminista ikastaro jarraituak eta doakoak**, adin guztietako emakumeei zuzenduta.
- **24 orduko zerbitzu espezializatua sortzea, eraso matxistei aurre egiteko** aholkuak eta orientabideak emateko.
- **Heziketa afektibo-sexuala garatzeko udal zerbitzua sortzea**; beti ere ikuspegi feministaduna, eta gezteei zein funtzio- edota adimen-aniztasuna duten pertsoneri arreta berezia emanez. Honen helburua nork bere sexualitate eta bere gorputzaren kontrola garatzea litzateke.
 - Sortutako zerbitzu honen funtzioa ikastegietan ere ikastaroak ematea edota gai honetan aritzen diren monitoreen elkarrean eta heziketa eragileen formazioa bermatzea da. Baita antisorgailuen doako banaketa ere bai.

Sexu eta genero aniztasuna

Jendartea ez da ulertzen osorik pertsona-aniztasuna ulertu gabe; hala bizimoduari, nola sexualitatea eta generoa sentitzeko erari dagokionez. Aukeratzeko eta erabakiak hartzeko gaitasunean oinarritzen da aniztasuna; baita generoa eta sexualitatearen arloan ere.

Sexu eta genero aniztasunak badu zerikusia sexu/genero sistema modu zabalean interpretatzearekin; horretarako orain arte ulertu ditugun gizon/emakumea edo maskulinoa/femeninoa bezalako

bitartasunak gainditu behar eta jendarte zuzena lortzeko, askoz gehiago aurreratu behar da. Izan ere, jendarte bat ez da zuzena izango, genero eta sexu identitatearen errespetua arlo guztietan bermatzen ez dituen bitartean, eta ez baditu aukera eta tratu berdintasun erreala arlo guztietan garantizatzen.

LGTBI kolektiboa kontuan hartzen ez duen hiri batean bizi gara; izan ere egoera askotan pertsona horien eskubideak eta askatasunak saihestu egiten dira. Ikertu eta ekin egin behar diegu pertsona horien bizimodua hobetzen duten proiektu eta ekimenei.

Proposamenak:

- **Transexualitatearen onarpenaren aldeko kanpainak garatzea;** aniztasunaren errealitate bat gehiago baita.
- **Adingabe transexualen eta horien familien ikusarazpen kanpainak antolatzea** adingabeen eremu naturaletan (ikastetxean, osasun zentroetan, kiroldegietan zein kutur guneetan...)
- **Ikastetxe guztietan sexu-aniztasuna tailerren bidez tratatzea,** naturaltasunez ulertua, eta eskubide-berdintasunez ere errespetatua izan dadin.
- LGTBI+ jende-taldearen errealitateaz ikerketak egitea eta ezagutaraztea: bazterkeria egoerak, haien kontrako gorroto-delituak, bullying edo genero beraren arteko jazarpena, eskola-jazarpen transfobia, lesbofobia eta homofobia bezalko erasoak argitara atzeratzea eta salatzea.
 - Ikerketa horiek eskuan hartuta, eta jende talde hauekin batera, sexu eta genero askatasunerantz aurrerapausuak ematen dituzten egitasmo jarraituak martxan jartzea. Bertan berariazko urratsak zehaztuko dira eta helburu hauek betetzeko nahiko baliabide ekonomikoa esleituko zaielarik.

Memoria eta biktimak

Egia, Justizia eta Memoriaren inguruko hastapenen inguruan adostasun politiko eta sozial handia egon dela ikusi berri dugu. Beste era batera esanda, oinarritzko eskubideen urraketa pairatu zutenen sufrikarioaren ezagupena, ordainkizuna eta memoria garatzeko erakundeek ekimenak antolatzeko beharraren inguruko adostasun politikoa zein soziala.

Egiaren prozesu hau garatzeko alderdikerietan oinarritutako ereduak gainditzeko asmoa dugu. Memoriaren inguruko politika, eta horri buruzko erakundeek erabakiek adostasunean oinarrituta izan beharko dute; eta ikuspegi orokorra eta osoa islatuko dute.

Arlo honetan ekimenak eta aurrerapenak ezagutu baditugu ere, urrats hauek txikiak dira oraindik egia osoa ezagutu ahal izateko. Memoria Historikoaren Legearen ondorioz behinena Egiaren Batzordea

sortzea litzateke. Honen bitartez, zio politikoengatik edonoiz eta edonon giza-eskubideen urraketa ezagutu eta salatu duen pertsona ororen errealitateari aurre egingo genioke.

Gainera, herri honetan bakea eta elkarbizitza normalizazioaren berreskurapena atzeratzen dituzten oztopo guztiak gaitzetea premia da. Preso edo errefuxiatu dauden pertsonen kasua lehen mailako errealitate gorria dugu. Ordua da euskal erakundeak ere saltsa honetan nahas daitezten, eta bake, elkarbizitza, eta adiskidetze politikak garatzen has daitezten; era horretan, zauriak behar den bezala ixteko aldebakarreko oztopatzaileei aurre eginez. Pertsona presorik edo errefuxiatu gabeko Euskal Herria eraikitzeke ordua ere bada.

Genero-ikuspegia ere sartu behar dugu egia eta justiziaren aldeko borroka horretan. Emakumeok, emakume izateagatik berariazko sofrikarioa pairatu dugu. Horregatik, gure eskubideek bereziki babestuta eta ordainduta izan behar dute.

Proposamenak:

- **Memoria historiakoaren esparruan, ekimenei eragin.** (efemerideak ospatzea, berariazko ekitaldiak antolatzea, erakunde-erabakiak hartzea, zabalkunde lanak, interpretazio guneak, sinbologia, ...).
- **Frankismoaren garaiko sinboloak**, kale-izendapenak, tituluak, eta mota guztietako zantzuak identifikatzea eta **ezabatzea**:
 - Kale hauen izenak berehala ordezkatzeko: Adibidez, Obispo Olaetxea, Cruz Dársena de Portu. Gobernu frankistak konfiskatu zituen eraikin publikoetan idazki-oroitgarri baten bidez bahiketa hura ezagutaraztea: Udal Euskaltegia, kasurako.
- Barakaldoko zein Euskal Herriko gizon-emakume ospetsu bat omentzeko haren izena kale bati emateko erabakia hartuz gero, izen osoa jartzea edo berrezkuratzea; arrazoi praktikoengatik abizena bakarrik jartzen badugu, omenduaren itzala ezabatu egiten baita: (Ronda Azkue erabili beharrean Ronda Resurrección Maria de Azkue. Aleixandre erabili beharrean, Vicente Aleixandre)
- Pertsona presoek giza-eskubideen defentsan aurrerapausuak ematea.
 - Presoek pairatzen dituzten salbuespen neurrien zein eskubide-urraketen amaiera eskatzea
 - Sakabanaketarekin bukatzeko ekimenak garatzea.
 - Gizatasunagatik larriki gaixorik dauden presoak kalera ateratzea galdatzea, tratamendu egokia hartu ahal izan dezaten.
 - Emakume presoak ere tratatu duina eman diezaieten galdatzea, (bereziki emakumeak diren neurrian) Berariazko mediku-arreta, higienarako gaiak eskuratzeko aukera...)

Zerga politika eta aurrekontuak

Osoko hautabide sakonak behar dira krisialdi estrukturalari aurre egiteko. Hautabide horien helburuak gehiengoaren bizimodu duina eta kalitatezkoaren defentsa beharko luke izan. Krisialdiaren bukaeran inposatu dizkiguten neurriak, alta, kapital handien interesak babestera egon dira bideratuak, eta ez langileen babesera.

Azken urte hauetan, atzera egin dugu bidezkotasuna eta gehikortasunaren haztapenetan, zama fiskala lan-errenten gainera eta zeharkako zergetara desbideratuz. Politika fiskalek ez dute erantzun egokirik eman hiritargoaren oinarrizko beharretara; ez, gutxienez, modu proportzionalan eta momentuan. Politika hauek ez dute aberastasunaren banaketa zuzena eta progresiboa bermatu, diru-sarreraren jatorria kontutan hartuz.

Datozen lau urteotan egin nahi dugun fiskalitatearen oinarriak unibertsalitatea, ekitatea, progresibitatea, berdintasuna, gardentasuna izango dira. Politika publikoak garatzeko behar beste baliabide ekonomikoak garatu beharra dago.

Proposamenak:

- Hiritarren oinarrizko premiei erantzun egokia emateko **fiskalitate progresiboko neurriak indarrean jartzea**. Mailaka, diru-sarreraren arabera, eta udal zergen beherapen edo zerga-hobarrien bidez.
- **Prezio publikoak:**
 - **Koordinaketa duten zerbitzuak, dohainik diru-sarrera apalak dituzten erabiltzaileentzat** (kultura, kirola, Giltzarri, Euskaltegia, Udal Haur Eskolak,...)
 - **Gastu publikoa gutxitzea**, propaganda instituzionala, inaugurazioak, prentsa, .. bezalako diru-partidak bertan behera utziz.
 - **Udaletxean ere ekonomia sozial eta lagunkiderantz urratsak ematea**; adibidez, banku etikoa edo kooperatibismoaren alde eginez.

Herri programa

2019

Barakaldo osasuntsu eta ikasia

ehildu

Kultura

EH Bilduko lagunok kulturadun gizonen eta emakumez osatutako Barakaldo bat nahi dugu. Hiritargo sortzailea, kritikoa, bere buruaren jabea, eta askea nahi dugu. Sinetsita gaude kultura tresna paregabea dela helburu hau lortzeko. Eskubide unibertsala da kultura eta edonori zein edozein herriri bermatu behar zaie.

Kultura ezinbestekoa da pertsonaren garapen osorako; ondorioz, herri baten ongizatearen zatia da. Integrazio zein kohesiorako tresna egokia da gainera; hauxe izango baita guretzat hurrengo urteotako erronka, migrazioek eta horiek dakartzaten aldaketa sozialak erabakigarriak izango diren testuinguru batean.

EH Bilduk Euskal Herriak bizi duen kultur aniztasuna aldarrikatzen du. Gure ustez, kulturak etengabe eguneratzen diren jendarte-sistemak dira eta inguruarekiko hartu-emanetatik bizi dira. Ikuspegi honetatik, euskal kultura eta euskarazko kultura izango dira aniztasun horren ardatza eta kriseilua.

Era berean gure ustez, jendartea eraldatzeko eragilea izango da. Izan ere, jendarte bat eratzen eta eraldatzen da kulturaren bitartez; hau da: feminismoa, aniztasuna, elkartasuna nazioartekotasuna, ekologismoa, parte-hartzea, ... bezalako baloreen bitartez bilakatzen da jendartea. Kultura bat baino gehiago bizi izaten dira jendarte batean; elkarren ondoan, elkarkidetzan eta elkarreraginean; baina batek kohesionatu eta bere altzoan bildu behar ditu gainontzekoak, bizirauteko grina elikatuz. Euskal kulturak jaso eta bete behar du rol hori. Berezko hizkuntza eta tradizioak dituen gure kultura, baina jendarte moderno eta heterogeneo bati zabalik egon behar du; munduari begira dagoen kultura bat. Ez dugu kultura aldatu nahi, baizik eta bere planteamendua.

Proposamenak:

- **Ekintza kulturalako plan estrategikoa diseinatzea** Barakaldoko garapen kulturalen parte hartzen duten eragile guztiekin batera, eta etorkizuneko lerro estrategikoak zehaztuko dituen kultur arloan, 2019-2025 aldirako.
- **Jardun Artistikoen Barakaldo Sormen Zentroa sortzea. Gai artistiko guztientzat zuzendutako gunea:** eskultura, pintura, arkitektura, artisautza, dantza, musika, eta abar..., eta Barakaldo eremu kulturalako erreferentzia gisa kokatu. Normalean Bilbon pilatzen den kulturgintza nolabait banatzeko eta dezentralizatzeko. Gure iraganeko azpiegiturak aprobetxatuz, Serralta Parkean kokatzea proposatzen dugu, edo Munoa Jauregia
- **Tokiko musika taldeak bulkatzea:**
 - Entsegurako gelak eskaintzea; toki estalietan (Kultur Etxetan, bestelako lokalak,...) edo estali gabeen (Barakaldoko toki batzuetan dauden lan-etxola hotsgabetuetan) Beti ere, auzokideentzat eragozpenik ez dakartzan lekuetan. HAZ bulegoari tokatuko litzaioke zerbitzu hau kudeatzea; baita Kultur Etxeei eta Gazte Zerbitzuei.

- Tokiko taldeen emanaldiak handitzea udaleko kultur ekintzetan; Barakaldoko jaietan, kasu.
- **Herri jaiak sustatzea topagune gisa.** Udal Jai-Batzordearen kudeaketa ekonomikoaren gardentasuna ziurtatzea, eta auzoetako jaietarako zein jai orokorreko azpiegiturak eguneratzea.
 - Jai-esparruetan gertatzen diren sexu-erasoen aurrean prozedura-protokoloak ezartzea. Protokolo hau gizarteratzeko jaietako eragile nagusien artean.
- **Liburutegietako dinamizazioa sustatzea.** Irakurtzeko zaletasuna piztea. Fondoak aberazteko eta eguneratzeko finantziarioa.
- **Desertu-Urban auzoan liburutegi bat zabaltzea;** haurrentzako irakurketarako dinamizazio esparru bat bertan egonik.
- **Barakaldo Antzokia suspertzea.** Aurrekontuak handitzea eta instalazioak berriztatzea. Adinen arabera berariazko programazioak taxutzea guztion antzerki hau jende-talde guztietara hurbiltzeko. Bestelako elkarteei ere, esparru batzuen erabilpena erraztea.
- **Hiri grafiti eta ormairudien jaialdia antolatzea** kalean dauden erakuslekuak aprobetxatuz; mehelin-hormak, kasurako.
- **Boluntarioria, eta elkartegintza sustatzea.** Horretarako behar diren diru-partidak handitzea. Boluntarioria balioztatzeke kanpainak egitea prentsan.
- **Teknika eta Industriaren museoa sortzeko bultzada** eman Barakaldotik. **Hiri ondare industrialak historikoa zaintzeko kultur ardatza** bihurtu dezagun Ezkerraldea.
- **Udal Erakusgelarentzat kokapen duinagoa** bilatzea. Proiektu honen duintasunaren alde egitea.
- **Eszena-arten liburutegia sortzea:** bertan musika-tresnak, antzerki-atrezzoak, ... gordeko dira.
- Kultur **topaketetarako esparruak sortzea. Kultur aniztasuna mantentzeko eta garatzeko** eta bestelako kulturetatik datozen pertsonak euskal kulturara hurbiltzeko.

Kirola

Hego Euskal Herriko hiritarren artean 10tik 7 geldikorra izaten dira. Jendartearen %40aren mugikortasun beharrak ez dira kontutan hartzen kirol politikak taxutzen direnean. Gainera kirola ere ez dago babestuta krisialdiak ekarri dituen murrizketen kontra. Bukatzeko, kirol politiken helburua kirol jarduera eta egiturak izan dira, eta ez pertsona kirolariak gehienetan.

Batzuetan, udal gobernutik hasi eta Autonomia Elkargoaz bukatuta, kirol politika hiritarrentzat garatu da, bai; baina berarekin kontatu gabe. Administrazioak kirolaren kontzeptu murriztua izaten du; horregatik hiritarren ikuspuntuak aintzat hartzen dituen kudeatze eredu berri eta berritzaileen zantzurik ez da ikusten.

Gure helburua, urte hauetan horixe izango da: kirolaren kontzeptu murriztutik kirola praktikatzen duen jendarte aktiboa, eraldatzailea, askatzailea eta kritikoa osatzera. Jendarte eraldaketarako tresna ere bada kirola, eta kontuan hartu behar dugu zeren eta jendea inplikatzeko, erakartzeko, eta eraldatzeko gaitasun izugarria dauka. Gure herriaren kultura barruan duen funtsa ere, ez da txikia.

Proposamenak:

- **Udalerrirako kirol-plangintza osoa sortzea.** Horretarako, **azpiegituren auditoria** bat egingo da gabezia guztiak zerrendatzeko.
Zabalik dauden azpiegituretan:
 - Gutxieneko argi, bainu, eta ur-horniketa ziurtatzea.
 - Frontoi guztiak estaltzea. Kirol guztietako instalazioak bertan jartzea: voleibola, saskibalioa, ...
 Estalita dauden azpiegituretan:
 - Premiazko mantentzea eta artapena. Gorostitzako polikiroldegiaren itoginak konpontzea, adibidez.
- **Ur-jarduerak sustatzea.** Arraunketa edo piraguismoa bezalako kirolak praktikatzeko behar den hornikuntza egotea. Horretarako **Portuko dartsena berreskuratzea.** Itsasadarrari begira zegoen herria zen Barakaldo, industriaren aurrean. Orain, itsadarra herrian integratu nahi dugu.
- **Patinai pista, eta eskalada-murru, besteen artean, izango duen kirol gune muntifuntzionala sortzea** Etxatxu kaleko 33. eta 35. zenbakietan abandonatuta dagoen eta kirol-ekipamendu baterako zuzendua izan behar zen **azpiegituran.**
- **Oraingo azpiegiturak baliabide hobekin hornitzea**, edozein kirol gutxieneko baldintzetan praktikatu ahal izateko, **gutxiengo egoerako kirolak barnebildurik.** Horretarako oraingo azpiegiturak zabaltzea edo baliabide berriak egiten saiatzea. Adibidez, Zuazoko futbol zelaiaren harmaila berriak eraikitzea; eta hauen azpiko espazioan gimnasialekuak, aldagelak edo biltegiak egitea.
- **Kirol-koordinatzailearen postua sortzea.** Honek laguntza emango die IGEko arduradunei eskola-kirolaren tramitazio zein diru-laguntza guztiak kudeatzeko.
- **Lasesarreko futbol zelaiaren gaur egungo erabilera mugatua gainditzen sustatzea**, eta gizonezkoen futbol taldearentzat ez ezik, **emakumezkoen taldea bertan ere partidak jokatzea** sustatzea.

- **Hiritargo ekintzailea sortzeko** proposamen hauek luzatzen ditugu:
 - Dauden kirol-jarduerari buruz informazioa emateko berariazko egitasmoa sortzea. Kirola praktikatzeko duen pertsona bideratzeko eta eskaintza berriak helarazteko edo diru-laguntzak lortzeko informazioa emango dio.
 - Udal kirol-azpiegiturak sustatzeko, informazioa zabaltzea.
 - Federatu gabeko eskola-kirola sustatzea bigarren hezkuntzako ikastetxeetan ere.
 - Kirol-egitasmoak auzo guztietan, adin guztietako pertsonen bizimodu osasungarriaz kontzientzia hartzeko.
 - Udalerriko bidegorri zein ibilbide berdeen mapa plazaratzea.
 - Nagusiek bizimodu aktiboa eraman dezaten, beraiei moldatutako kirol-egitasmoak.
 - Mugikortasun mugatua duten erabiltzaileei kirol-instalazio guztietara sarbidea erraztea. Adibidez, Gorostitzako polikiroldegiko futbitoko zelaiko harmailetara, kanpoko sarbidean, edo kafetegira. Igerileku guztietan murgiltze-garabiak (ekipamendu bakoitzeko bat gutxienez).
 - Nerabeengan kirolaren praktika zabaltzea; hauxe baita bizimodu osasungarriaren sustapena, eta jendartean integratzeko tresna paregabea.
 - Kirol-jarduerarako esparruak ugaritu, anitzak, kulturaren aldetik; kirola ere baita kulturen arteko integratzaile gisa itzela.

- Kirola praktikatzeko eta familia kontziliazioa errazteko zera proposatzen dugu:
 - Familia osoa kirola praktikatzeko jarduerak antolatzea.
 - Doako ludoteka kirol zentroetan. Lasasarren, hain zuzen ere.
 - Kirol espazioen ordu-erreserba egiterakoan, **nolabaiteko lehentasuna bermatu adingabeak bere ardurapean dituen erabiltzailearentzat**; Adibidez: adingabeak kirola egiten duen bitartean, horren tutoreak lehentasuna edukiko luke ordu horretan beste kirol-espazioa eskuratzeko.
 - Amatasunak inposatzen duen kirola praktikatzeko **etenagatik, balizko kirol-bekak edo diru-laguntzak ez galtzea**.
 - Emakumeen artean kirola bulkatzea, eta mota guztietako **laguntzak** horretarako.

- **Federatutako kirolaren arloan**, proposatzen dugu:
 - Kirol-elkarte zein klubentzako **diru-laguntzak emateko oinarritzko araudiak birpentsatzea**.
 - Laguntzak emateko lerro berriak zabaltzea: adibidez, ikuskizunak antolatzeko.
 - Gutxienezko diru-laguntza Barakaldoko kirol klub guztientzat; burututako jarduerak jostifikatu ondoren, noski)
 - Emaitzen araberako konkurrentzia; kirolaria profesionalak kanpoan utzita. (?)
 - **Herri Kirolak sustatzeko eta indartzeko berariazko plangintzak**, Euskal Herriaren ezaugarriak direlako.

- **Kirola praktikatzeko osasuna mantentzea**. Hauxe dira gure proposamenak:
 - Udalerrian dauden kirola praktikatzeko aukerak sustatzea eta ikusaraztea, osasuna hobetzeko helburuarekin.
 - **Mugimendu Planarekin bat egitea**; baita Jaurralitzak eskaintzen dituen bestelako plangintzekin

kirola eta bizitza aktiboa sustatzeko.

- **Bizitza aktiboa eramateko berariazko kirol-egitasmoak garatzea;** beti ere osasun zentro publikoekin koordinaturik: Adibidez, elikatze osasungarriaren ohiturak zabaltzeko, eskolara bizikletaz joateko, ...

Hezkuntza

Euskal Herrian hezkuntza sistema, Espainiako Estatuaren menpean dago. Madrilen hartzen dira gure hezkuntza baldintzatzen duten erabakirik garrantzitsuenak; gainera eskuduntza osoa ere ez dugu oraindik. Duela urte batzuk, hezkuntzaren birzentralizatzeko prozesuari ekin zion Madrileko Gobernuak, helburu ideologiko eta politikoetatik hasita. Gainera, murrizketa eginez, geneuzkan eskuduntza kaskarrak gehiago baldintzatu zituzten.

Hezkuntza arloko eskuduntzez aparte, Barakaldon badugu lan eskerga egiteko. Hasi eskolen eraikinekin, jarraitu ikastegiekin eta haien inguruaren arteko harreman ereduarekin (hizkuntza-zein kultura-proiektuak, eskolaz kanpoko jarduerak, hezkuntza erkidegoa eta herriko eragileen arteko hartu-emanak, ...), eta hezkuntza-proiektuekin bukatu.

Herri osoaren ardura da hezkuntza. Jendarte osoaren inplikazioa behar da zeren eta etorkizun jendartea osatuko duten pertsonen garapenean garrantzia handia du.

Lehenetasuna, beraz, eman behar diogu hezkuntzari, haren bitartez, jendarte barneratzailea, kohesionatuta, anitza, elkarkidea eta askea osatu baitaiteke.

Barakaldo jantzia, ekintzailea eta ikasia eraikitzeke balio du hezkuntzak; herri eraginkorra eta eraldatzailea lortzeko espazioa izan behar du gure eskolak. Ondorioz, EH Bilduren helburua “herri hezitzaileak” eraikitzea izango da. Honek hezkuntza hurbila, kalitatezkoa, anitza, barneratzailea eta parte-hartzailea bermatuko du. Hots, herri osasuntsua eta ikasia.

Proposamenak:

- **Barakaldoko eskola publikoaren hezkuntza-mapa antolatzea hezkuntza komunitate osoaren eskutik:** ikaslegoa, irakaslegoa, familiak, pertsonal teknikoa, ... benetako beharrianak aztertu eta konpontzeko, bai azpiegiturei, bai hezkuntza-proiektuei dagokionez.
- **Matrikulatzeko bulego bakarra zabaltzea,** ikaslegoaren aniztasuna modu orekatuan banatua izan dadila, bazterkeriak ekidinez, eta hezkuntza-erantzun egokia eman ahal izateko.
 - D ereduari matrikulazioa sustatzeko.
 - Hizkuntza murgiltzea indartzeko, euskararen bitartez.

- Kultur aniztasunaren egitasmoak garatzeko.
- Laguntzarik gabeko edozein adingaberen eskolaratze-protokoloa ezartzeko; berdin derrigorrezko eskolaratzeko adina duen ala ez.
- **Ikastetxe berria Retuerto eta Ansioko zonaldean**, ikastetxe publikorik gabeko Barakaldoko zonalde bakarra baita.
- Trueba institutua ordezkaturiko duen **institutu berria eraiki baino lehen, bertako hezkuntza komunitatearen beharrak eta nahiak aintzat hartzea.**
- **Baterako hezkuntza egitarauak garatzea ikastetxeetan**; nolabaiteko garrantzia eman udaleko hezkuntza-politikan egitasmo hauei.
- Ikastetxeetako **jantokiei janaria bertan egiteko aukera ematea**, edo bertako eta sasoiko produktuekin menu osasungarriak erabiltzen dituzten catering enpresa hautatzeko aukera.
- Ikastetxeetan talde lagunkideak sortzea, **soberan geratzen den janaria** ontziratzeko eta **gizarte-jantokietara eramateko.**
- **Genero ikuspegia** ezartzea hezkuntzak barnebiltzen dituen ikuspegi guztietan.
 - Enplegua, kirola eta kultura bezalako arloetan egon diren eta diren Barakaldoko emakume erreferentziadunak eskoletan ezagutarazteko programak garatzea.
 - Berariazko beharrak dituzten emakumeentzat ikasketak egiteko diru-laguntzak eta beka ematea: gurasobakarreko familietako emakumeentzat, emakume gazteentzat edo autonomia ekonomikoa ez dutenentzat, beraien ardurapean menpeko senideak dituzten emakumeentzat, ...
- Ikastetxeetan **zentru-plana osatzerakoan Barakaldoko kultura, ohiturak eta jaiak kontuan izango dituen herri curriculumaz ezartzea.** Auzoetako kultur jardueran inplikatzeko ikastetxe publikoak, eta alderantziz ere bai.
- **Familien topaketak antolatzea**; bertan aztertzeke Barakaldoko sare publikoaren gabeziak eta beharrak. Batzar horiek hausnarketa, formazioa, informazioa, koordinazioa eta ekintzarako topagunea izango lirateke.
- **Euskaldun eredia bermatzea hezkuntza-eskaintza osoan; hala arautua nola arautugabe.**
 - Euskarazko jarduerak eta jolasak bulkatzea jantokia ondorengo aldietan.
- Udalak **eskolaumeei zuzenduta** antolatzen dituen jarduerak guztiak, **euskaraz, barneratzaileak eta ez sexistak izatea bermatzea.**
- **Eskolaz kanpoko jarduerak garatzeko** udalaren kirol, **hezkuntza eta kultur azpiegitura guztiak**

eskaintzea, dohainik.

- **Ikastetxe guztiak modu egokian mantentzea.** Irisgarritasuna pertsona guztientzat, eta behar guztiei erantzun egokia ematea bermatu: igogailuak, jantokiak, gimnasilekuak, estalitako jolastokiak, ...)
- **Ikastetxeko azpiegitura guztiak** inguruko **hiritarren beharretara eskaintzea** (kirol, kultur, edo jai-jarduerak)
- **Jolastoki hezkideak eta barneratzaileak** antolatzea Barakaldoko ikastetxeetan.
- **Haur eskola bat auzo bakoitzean bermatzea.** Hezkuntza eredu berritzailea, euskalduna, bertakoa eta kalitatezkoa izango duena eta 0-3 urte tarteko beharrak asetzen dituen.
- **Copyright gabeko eskola digitala sustatzea.** Eskola publikoen arteko harremana bermatzea Berritzegunearen bitartez; esperientziak, gure errealitate hurbilazko geuk sortutako gai didaktikoa partekatzeko; era honetan testu liburu tradizionala eta argitaletxeen monopolioari egingo diogu aurre.
- **“Bertsolaritza eskoletan”** egitasmoa bultzatzea, eta baliabide gehiago ematea. Udalerriko kulturazain jolas-jardueretan parte-hartzearen alde egitea
- Ikasleen soslaia arabera, beharrezkoa bada, **ikastetxeetan askotariko araubide lan-taldeak martxan jartzea** (Jendarterako heziketa-monitoreak, hizkuntzarekiko laguntza, ...)
- **Liburuak partzekatzea** eta berrerabiltzearen alde egitea, ikasketa maila guztietan.

